

Amesten dugun mundua

Bakea, lasaitasuna eta espeziak. Ondasun horietako lehena da guzietan handiena eta preziatuena. Maximiliano Transilvano (1522-10-05)

Getariako seme Juan Sebastian Elkanok XVI. mendean burututako Mundubira gizateriaren historiako mugarri nagusietako bat izan zen. 1519-1522 aldiko kronikek hamaika kolorez osatutako munduarekin topo egin zutela erakusten dute. Hamaika izan ziren ontziratu zirenen bizi-esperientziak eta bizi-oinarriak. Hamaika ere, han eta hemen topatutako bizimoduak.

Oraingo mundutik, gaurdaino iraun duten eta iraunarazi ditugun egitura menderatzaileez jabetzea dagokigu. Berdintasunetik munduaren aniztasuna aldarrikatu eta balioan jartzea da datozen belaunaldiei egin diezaiekegun ekarpenik handienetariko bat.

Amesten dugun munduan itsasoak ez gaitu banatzen, elkartu baizik.

Amesten dugun munduan herriak, kulturak eta hizkuntzak altxorak dira.

Amesten dugun munduan pertsonen eta herrien arteko berdintasuna eta elkartasuna da nagusi.

Amesten dugun munduan eskua luzatzen duten pertsonak daude nonahi.

Bere askatasuna amesten duen herriak halako mundu bat baino ezin du amestu.



MAITASUNA

BEGIRUNEA

HERRITARRAK

ELKARTASUNA

BERDINTASUNA

BAKEA

ANIZTASUNA

JAKINTZA

BIZITZA

ASKATASUNA

HERRIA

ES



EN



FR



Getariako Udala

Iraganaren aitortzatik mundu berri batera

Inguruko herriei kalterik edo ondoezik ez eragiteko begiramen eta zaintza handia erakusten dute guziek, are gehiago albo-uharteetako auzo-herriei kalterik batere ez egitekoa, eta askoz ere handiagoa atzerrikoei edo erromesei. Maximiliano Transilvano (1522-10-05)


XVI. mendeko espedizio historikoan, aurrez aurre jarri ziren bateko eta besteko herriak eta herritarrak. Askok izan ziren ikusitakoak, ikasitakoak, sufritutakoak eta sufriarazitakoak. Aitortza egiten diegu askotariko sufrimenduak jasan zituzten guztiei, bereziki emakumeei, haiek bizitakoak gehienetan ikusezinak izan baitira. Mundualdi honetakooi, egundaino luzatu diren injustiziei zorrotz begiratzea dagokigu, eta, iraganeko oinaze eta giza kalte guztiak aitortzetik harago, etorkizunean gehiago errepika ez daitezen egin beharreko bideari ekitea.

Herrien historia gatazkaz eta sufrimenduz urratua dago, gurea ere bai.

Munduan zehar herrien eta pertsonen arteko indarkeriak mendez mende egin du bidea, gurean ere bai.

Historian zehar sufrimenduaren pairatzaile eta eragile izan gara, gu ere bai.

Horregatik orain, bestelako mundu bat posible dela aldarrikatzen dugu, bai, guk ere bai.



ES



EN



FR

